

Javier Retegi, Jose Antonio Garrido eta Sixto Jiménez-ek, unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana aztertuko dute 'Jakiunde' jardunaldian.

2011/03/28

Ikasleek ez dute egunero edukitzen aukerarik pertsona entzutetsuak foro bakar batean mintza dakizkien, esanez enpresak haiengan zer bilatzen duen, ezagupenez haratago, eta ikasleek zer ekarri egin diezaioketen enpresari.

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak Oñatiko campusean, Jakiunde, Zientzia, Arte eta Letren Akademiaren eskutik, gaur asteartea, bildu ditu "Jakiunde Topaketa- Encuentro Jakiunde" saioan beren arloan entzute handia duten hiru aditu, Javier Retegi, Jose Antonio Garrido eta Sixto Jiménez era honetako galderei erantzuteko, "Unibertsitatearen ondoren zer?", "Zein da unibertsitateak eta unibertsitarioak enpresari egiten dion ekarpena?", "Zer bilatzen du enpresak profesional batengan?" "Nola kudeatzen da talentua?", "Zeintzuk dira gaurko merkatu nitxoak?", "Zer eskatzen dute enpresek ezagupenez gain?" "Zein trebetasun eta gaitasun funtsezko izan behar ditu norberak?".

Javier Retegi, Mondragon Unibertsitateko irakasle izan zen eta ondoren zuzendari eta errektore; berak eman du unibertsitateaz eta enpresaz duen ikuspegia eta era berean, unibertsitateak eta unibertsitarioak enpresari egin dion ekarriaz duena.

Bestetik, Jose Antonio Garridok -Iberdrolako presidenteorde ohia eta gaur egun argindar, energia eta enpresa lidergoan aholkularia-, enpresek profesional batengan zer bilatzen duten esplikatu du, gaur egungo enpresen erronkak eta merkatuko nitxo berriak zeintzuk diren. Azkenik, Sixto Jiménez enpresari eta ekintzaileak, batik bat gaitasun emozionalak landu ditu eta aztertu egingo ditu zenbait kontzeptu, lan taldeko konfiantzaren kultura, une batzuetan gauzak emozioen ikuspuntutik ikusi beharra eta arrazionaltasunetik aldendu beharra, autokritikaren kultura lehiakortasunak arrakasta handiagoa izan dezan eta abar.

Jakiunde topaketak

Zientzia, Arte eta Letren Akademia, Jakiunde baita, pentsamendu askatasuna eta sormena bultzatzeko hausnarketa foroa da, Pedro Miguel Etxenike fisikoa buru izanik pentsamenduaren arloko berrogeita hamar lagunek eta gehiagok eratzen dutena. "Jakiunde Topaketak" elkarrizketa ireki batzuk dira, zientziak, arteak eta letrak ikasleei hurreratzeko, beren espezializazio arloetan entzutetsuak diren pertsonalitateak ikastetxeetara ekarriz. Ekitaldi dinamikoa da, gazteen kezka eta jakin-minak bultzatutakoa, aukera baitaude beren zalantzak argitzeko, galderak eta komentarioak egiteko, eta baita topaketan sortzen den edozein jakingairi buruz haiekin eztabaidatzeko. Akademikoez beren esperientziak partekatzen dituzte ikasleekin beren bizipen, jardun profesional eta diziplinetatik.



JAKIUNDE
ZIENTZIA, ARTE ETA LETREN AKADEMIA